

## Astelehenean irekiko dira berriz adinekoentzako eta desgaituentzako eguneko zentroak, eta prebentzio neurriei eutsiko zaie egoitzetan

**Gasteiz, 2020ko uztailaren 29a.** Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak aztertu ditu Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFE) adinekoentzako eta desgaituentzako zentroetan hartutako azken prebentzio neurriak. Hortaz, erabaki du datorren astelehenetik aurrera —abuztuak 3— irekitzea eguneko zentroak, itxita egon baitira hilaren 18az geroztik, eta data horretan bertan egoitzetarako hartutako prebentzio neurriei eustea. Neurri berri horiek indarrean egongo dira abuztuaren 9ra arte, egun hori barne.

Gaur hartu diren prebentzio neurrien helburua ere covid-19aren ondorioen aurrean kalteberen izan daitezkeen pertsonen eta haiek artatzen dituzten langileen osasuna eta ongizatea babestea da.

Hortaz, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin koordinatuta, Gizarte Politiken Sailak erabaki du aurrerantzean ere pertsona bakarrera mugatzea erabiltzaileak bisita ditzaketenen kopurua, nahiz eta astero alda daitekeen, GOFEn adineko eta desgaituentzako egoitza zentroetan eta Arabako Foru Aldundiak zentro pribatuetan itunduta dituen plazetan.

Pertsona horien irteera eta paseoei dagozkien murrizketak mantenduko dira, baina salbuespen izango dira zentroetako lorategietarako eta gertuko ingururako irteerak eta zentroek programa ditzaketen jarduera terapeutikoak egiteko irteerak.

Horrez gain, ezohiko irteerak baimendu ahal izango dira, gutxienez astebete eta gehienez 45 egunekoak, baina zentrori itzultzean horretarako ezarritako osasun protokoloa bete beharko da.

Eguneko zentroeiei dagokienez, datorren astelehenean —abuztuak 3— ekingo diete jarduerari, astelehenetik ostiralera, baina itxita jarraituko dute asteburuetako berariazko baliabideek.

Arabako Foru Aldundiak antzeko neurriak hartzea gomendatu die udalei, eguneko arretarako landa zentroetan, bai eta zentro pribatuei ere.